

Egunon guztioi,

Gaur bildu gara hemen Entzutegi Nazionalak Askapenaren kontra daukan prozesuko bost auzipetuekin. Lehen-lehenik gogorarazi nahi dizuegu epaiaren zain daudela: Askapena ilegalizazio arriskuan dagoela eta hemen dauden bost lagunei, Walter, Dabid, Gabi, Unai eta Aritz-i 6 urteko espetxe zigorra eskatzen diela estatuak fiskaltzaren bidez.

Prozesu hau beraien atxilotetekin ezagutu genuen eta atxilotetak izan zirenetik hona, beraien eskubide zibil eta politikoak etengabe urratuak izan dira: atxiloteta inkomunikatua, tortura arriskua, badaezpadako espetxeratzea, sakabanaketa, baldintzapeko askatasuna (alegia beraien ondasunak blokeatuta, familiak hipotekaturik, pasaportea kendurik, eta kontrol judizialpean bizi beharra), epaiketan Askapena, Askapeña eta elkartrukeren defentsarako eskubidea urratua, eta orain, epaiaren zain daudela, baldintzapeko askatasunean bizi direla, berriz, espetxeratzeko arriskuan bizi dira. Ez litzateke lehen aldia izango epaiaren zain egon, eta berau ezagutu aurretik, euskal herritar bat atxilotzen dutena. Hori da orain beraiak bizi duten errealitatea.

Gu ez gaude prest, ordea, eskubide urraketa horiek guztiak oharkabean pasa daitezzen. Ez beraiengatik bakarrik, gu guztion betebeharrak demokratikoa da salbuespen neurri guzti hauei amaiera ematea: estatuak indarrean du oraindik legedi eta eskubide zibil eta politikoak urratzeko arkitektura oso bat, eraitsi gabe.

Gaur ezagutarazi eta abiaraziko dugun ekimenak, *babesguneak*, honako ezaugarriak ditu:

- *babesgunea* Askapena eta 5ek bizi duten egoera ezagutarazi eta babes sozial/politiko/herritar bat sortzeko tresna da, Askapena ILEGALIZAZIO ARRISKUAN eta hauek 5ak ESPETXERATZE ARRISKUAN daude.
- *babesgunea*, espetxeratze eta ilegalizazio arrisku hori hainbat eskubide urraketan ondorengo bat delako. Epaiketa hau, -lehenago beste hamaika bezala-, posible izan da soilik, salbuespen neurri josita dagoen salbuespen legedi bati atxikitu zaiolako, eta beraz, *babesgunea* salbuespen neurri eta lege horien gainean eztabaidatu, diagnostiko bat egin eta aurrera begira elkarrekin, modu irekian eta batzarren bidez, urrats berriak marrazteko tresna ere izan nahi du.
- *babesgunea* Askapenaren kontrako prozesuko auzipetuekin jartzen dugu abian gaur, eta hemen bertan egongo gara iraunkorki eta denbora mugarik gabe. *babesgunea* gauzatzeko, ordea, azken urteetan Askapenak, Libre ekimenak, Eleak erakundeak, Iruñeko herri harresiak eta abarrek jorratutako elkartasun eta aktibatze politikoaz baliatuko gara. Orain dei egiten dizuegu *babesgunea*-n esku hartu dezazuen, *babesgunea* denon artean eskubide zibil eta politikoen aldeko lantegi bihurtu dezagun hitzaldi, batzar, ekimen kultural, mahai-inguru eta bileretan esku hartuz. Dagoeneko gaur hemen atzean bildutako askoren babesa eta parte hartzeko konpromisoa jaso ditugu, baita gaur etorri ezin izan diren beste askorena ere, eta are nazioarteko zenbait eragilerena ere, -hurrengo egunetan jakinaren gainean jarriko zaituztegu-. Eta seguru gaude askoz gehiago ere izan gaitzkeena.

Askapenaren lan internazionalistaren alde,

Unai, Dabid, Gabi, Aritz, Walter eta gu guztion eskubide zibil eta politikoen alde,

Gaurko agerraldia, azkenik, baliatu nahi dugu, astelehenean arratsaldeko 19:00etan, *babesgunea* hartuko duen *kalekalde*-ko lokalean lehen batzar irekia iragartzeko. Eta bide batez mila esker *kalekalde*ko lagunei beren ateak babesguneari irekitzeagatik. Elkartasuna konpromiso bihurtzeko lehen urrats handia.

*babesgunea aurrera!*